

Etorkinak Zarautzen euskara-ikasle

Itziar Landa

Gero eta etorkin gehiago daude EAEn. Eta gero eta gehiago dira horien artean euskara ikasi nahi dutenak. Eskariari erantzunez, hasiak dira jadanik Zarauzko udal euskaltegian etorkinei euskara-eskolak ematen. Batzuetan, jatorrizko hizkuntza ez da gaztelania. Kulturak, ikasketa-maillak eta interesak ere desberdinak izan ohi dira. Eta horrek guztiak beraiazko erantzuna eskatzen du. Artikulugileak 2003ko martxoan abian jarritako bi talderen berri emango digu.

Sarrera

2003ko martxoan, etorkinez osatutako bi talde sortu ziren Zarauzko Udal Euskaltegian eta niri horietako bati euskarako eskolak ematea egokitu zitzaidan. Taldeei tratamendu berezia eskaini behar geniola iruditu zitzaigun, baina une hartan ez geneukan horrelako ikastaroen aurrekaririk, ez eta didaktika-materialik ere. Eredurik ez izateak antolamendu eta programazio berri bat sortzera behartu gintuen. Zorionez, garai hartan HABEk koordinatutako material berri bat probatzeko aukera izan genuen gure taldeetan, etorkinak euskalduntzeko material berezia, alegia, AISA izenekoa.

Artikulu honen helburua ikastaro horiei buruzko argibideak eta bertan izandako esperientziaren berri ematea da. Gure esperientziaren ondorio nagusia da horrelako ikastaroek lortzen dutela beren helburua: etorkinak euskal komunitate linguistikoan integratzen laguntzea.

Komunitate euskalduna berria eta neurri batean ezezaguna da etorkinentzat. Autoreak autore, eta J.W. Berry-ri jarraituta, etorkinaren integrazioa harrera-kultura ere bere egitea da, lehenengo belaunaldian behinik behin, jatorrizko kultura galtzen ez delako. Bigarren edo hirugarren belaunaldian beharbada, asimilazioa ere gerta liteke, jatorrizko kultura neurri handian gal liteke-eta.

Integrazioa lortzeko, ezinbestean hartu behar dira aintzat etorkinen ezauzgarri bereziak, eta, jakina, tratamendu berezia eman behar zaie eskolak emateko garaian, euskaltegietako ohiko ikastaroek ez dietelako eskaini, orain arte behintzat, beren beharretara bakarrik moldatzen den eredurik.

Hurrengo lerroetan, beraz, talde horiekin egindako lanaren nondik norakoak azalduko ditut: lehenengo, taldeak antolatzekeo prozesua zein izan

zen; bigarren, ikasleen tipologiari buruzko xehetasunak emango ditut; hirugarren, talde-dinamikari buruz ariko naiz, eta, atal berezia eskainiko diot asistentziari. Izan ere, alderdi honek nabarmen baldintzatzen du dinamika; eta, bukatzeko, adieraziko dut zein ondoriotara iritsi naizen eta zein irtenbide proposatzen dudan.

Taldeak antolatzeko prozesua

Azken urteotan nabarmen handitu da Euskal Herrian etorkinen kopurua. Zarautzen esaterako, 2003ko erroldan, 21.657 herritarretatik 568 etorkinak dira. Gainera, herri horrek baditu berezko ezaugarriak etorkinak erakartzen dituenak:

- Turismoak lanpostu asko sortzen ditu ostalaritzan.
- Bikote gazte asko etorri dira bizi izatera bertara, eta, ondorioz, jaiotza-tasa oso handia denez gero, umezainak behar dira.
- Zaharren kopurua beste herri batzuetan baino handiagoa da, eta horiek zaintzeko ere langileak behar dira.

Herritar berri horiek behin baino gehiagotan etorri izan dira euskaltegira ikastaroei buruzko informazioa eskatzera. Hala ere, informazioa eskatu arren, asko ziren ikastaroetan parte hartzeko izena ematen ez zutenak. Horretarako bi arrazoi nagusi zeudela uste dugu, batetik, matrikula ordaintzeko aurrerratu behar zuten diru-kopurua, eta bestetik, bi orduko moduluetara egokitzeko zituzten eragozpenak.

Gauzak horrela, 2003an Zarauzko Udaleko Euskara Zerbitzukoek datu horiek aztertu ondoren, interesgarri iritzi zioten etorkinentzako ikastaro bereziak antolatzeari eta 120 orduko *Harrera-ikastaroa* antolatu zuten, martxotik uztaileira, astean sei orduz, hiru egunetan banatuta. Horren berri zabaltzearen, Udalak ohiko hedabideetan egin zuen zabalkundea, erroldan zeuden etorkin guztiei gutuna bidali zien, eta prezio berezia ezarri zuen ikastaro horretarako (50 euro). Ikasleek aukera zuten dena batera ordaintzeko, edo, bestela, hilean-hilean.

Ordutegiari dagokionez, ikasleei aukera eman zitzaizen ondoen zetorkiena hartzeko. Bi talde eratu ziren, biak ala biak 18 ikaslekoak, bata goizez, eta, bestea, arratsaldez. Taldeak bete egin ziren, eta izan zen kanpoan gelditu zen ikaslerik ere.

Proiektua aurrera eramateko, Udalak laguntza eskatu zion HABEri, eta, diru-laguntza ez ezik, garai hartan bertan egiten ari ziren –eta gorago aipatu dudan– etorkinentzako materiala (AISA) probatzeko aukera ere eskaini zigun.

AISA 60 orduko ikastaroa emateko hogeit hamar ikastunitatek osatzen dute. Atazetan dago oinarrituta, hots, eginkizun komunikatibo bati begira hainbat jardura egin behar ditu ikasleak, betiere gairen bat ardatz hartuta. Ataza batzuk gai nagusira hurbiltzeko erabiltzen dira, eta ataza horiek dira, hain zuzen, Euskal Herriko kulturari buruzko xehetasunak ematen dituztenak, eta kulturen artean harremanak sortzeko giroa bideratzen dutenak.

Gaien inguruan ikasleek dituzten iritziak eta beharrak jasotzeko ere balio du AISAk. Hainbat atazatan, ikasleentzako eguneroko informazio interesgarria biltzen da. Pertsonaia batek gidatzen ditu etorkinak, euskara eta euskal gizartea erakusteko. Azaltzen diren egoerak etorkinek bizi izanda-koak dira, eta horiei euskaraz aurre egiten laguntzea da pertsonaia horren egitekoa.

Materiala probatzeko eta bideratzeko, HABEko teknikari Felix Sainzen laguntza izan genuen. Berak egin zuen gurekin batera taldeen jarraipena.

**Etorkinak:
ezaugarri
bereziko
ikasleak**

Euskararen irakaskuntzaren bilakabidean, eta azken urteotan batik bat, ikastaro berezi ugari antolatu da, gizartean sortu diren premiei erantzutearren. Hor dira, esaterako, merkatarietzako ikastaroak, erretiroa hartu dutenentzakoak, gurasoentzako taldeak, lan-munduan egin diren saioak eta beste zenbait. Zarauzko Udal Euskaltegiak ere bidea egina du arlo horietako batzuetan: merkatariekin, adibidez, hiru urtez jardun dugu; jubilatuekin 5 urte dira hasi ginela; eta gurasoekin abian da, bigarren urtez, ikastaro berezia.

Iaz, erronka berri bati ekiteko sasoia iritsi zitzaigun, eta hala eratu genituen arestian aipatutako etorkinen taldeak. Ikastaroa antolatzerakoan, zenbait ezaugarri aurreikusi genituen, baina orain, behin ikastaroa amaituta, askoz ere hobeto ezagutzen dugu haien errealitatea. Azter ditzagun, bada, ezaugarri horiek banan-banan.

- *Hizkuntzak*. Ikasle batzuek, adibidez Marokokoek, zeinek gehiago eta zeinek gutxiago, guztiek zuten gaztelaniaz komunikatzeko nolabaiteko gaitasuna. Beraz, eskolako jardunean, lortzen genuen, eragozpenak eragozpen, elkarren artean komunikatzea, eta alde horretatik ez zen arazo handirik izan.
- *Ikasketa-maila*. Era guztietako ikasleak genituen ikasketa-mailari dagokionez. Tartean, eta adibide bat jartze aldera, baziren beren telefono zenbakia ikastea ere ikaragarri kostatzen zitzaizkien; baina baziren, bestalde, goi- eta erdi-mailako ikasketak eginak zituztenak ere. Horrek guztiak, jakina, eragina du hizkuntzaz jabetzeko prozesu osoan.
- *Ikasle horientzat lanak du lehentasuna*. Zail zaie lan-merkatuan baldintza oneko lanpostuak eskuratzea. Gainera, egonkortasunik ez baitaukat, sarri lanez aldatu behar izaten dute, eta, bestetik, lan-merkatuko prekarietateak etengabe behartzen ditu lan hobeak bilatzera. Lan-merkatuari begira egoten dira adi-adi, eta baldintza hobeak (lanordu gutxiago, soldata hobe, kontratua, ordutegi egokiagoa...) eskaintzen badizkiete, aldatu egiten dute lanpostua. Edonola ere, ikasle horietatik gehienek zortzi ordutik gorako lanaldia daukate, lan-ordutegia aldatu egiten diete beharren arabera, eta asteburuetan berandu arte jarduten dute lanean.
- Etorkinen taldeetan, *kultura-aniztasuna* da beste ezaugarrietako bat. Hainbat eta hainbat lurraldetatik etorritakoak dira; batzuetan oso bestelakoak diren lurraldeetatik. Aniztasunak berariazko tratamen-

dua eskatzen du. Irakaskuntzaren ikuspegitik, aniztasunak alde on eta aberasgarriak ditu, baina, bestalde, kultura desberdinetako ikasle-leen interesak uztartzeko ahalegin berezia egin beharrean dago irakaslea.

- Oro har, *euskararen aldeko jarrera* dute. Bertako kultura ezagutzearen eta euskara ikastearen aldeko dira. Berez, gizarte honetan, gaztelaniak asetzen dizkie ikasle horiek bizitzeko dituzten hizkuntza beharrak, eta lanean ikasten dute gaztelania. Hala ere, ikasle horiek euskara ikastera etortzen dira: lanerako baliagarri ikusten dute eta integratzeko ere bai. Kontuan izan behar da Zarautzen asko egiten dela euskaraz, eta etorkinek, lanean ere, euskaraz mintzatzen den jendearekin dutela harremana. Haurrak dituzten etorkinek, bestalde, euskarazko ereduetan matrikulatzen dituzte beren seme-alabak, EAEko etorkin gehienek ez bezala. Hortaz, seme-alabek ikasten duten hizkuntza ikasteko beharra ere ikusten dute. Horregatik, motibazio pertsonal, instrumental eta sentimentalek zuzenean jokatzen dute ikasle hauen euskararen aldeko jarreran.

Talde-dinamika

Lehenengo eskola-eguna aurkezpena egiteko erabili genuen. Argi azaldu genien ikastaroaren helburua: elkarrizketa funtzionalak edo lagunartekoak ulertzeko gutxieneko gaitasuna lortzea eta komunitate berriarekin harremanetan jartzeko bidea eskaintzea. Material berria probatu behar genuela ere azaldu genien, eta oso jarrera ona izan zuten, iritzi eta aholkuak ere jaso baikenituen beren aldetik. Guk jakin behar genuen zein ziren ikasle horien helburuak eta asmoak, eta, era berean, ikasleek elkar ezagutzeko parada izan zezaten nahi genuen. Ez zitzaigun egokia iruditu, besterik gabe, beren bizitzari buruzko datuak eskatzen hastea. Zuzenedia iruditzen zitzaigun, eta, horren orde, geure burua, irakasleona, aurkezten zuen idatzitxoa prestatu genuen, euskaraz eta gaztelaniaz, AISA metodoari jarraiki, eta asmatu egin genuen. Izan ere, ikasturtea aurrera zihoala, konturatu ginen –arrazoi pertsonalak zirela eta– ez zutela batere gustuko beren bizitzaren xehetasunak ematea.

AISA materialean ikasleei euskaraz eta gaztelaniaz ematen zaizkie azalpenak. Hasieran, bietara irakurtzen genituen azalpenak eta argibideak, baina apurka-apurka, euskaraz bakarrik irakurtzen hasi ginen. Azalpena ahoz ematen genuen, oso erraz ulertzeko moduan. Bide horren aldeko apustua egin genuen, etengabe bi hizkuntzatan aritzeak aspergarriago egiten zituelako eskolak. Hala ere, emandako azalpena norbaitek ulertzen ez bazuen, gaztelaniaz irakurtzeko aukera ere ematen genion.

Eskolan, AISako lehenengo bederatzi unitateak landu genituen. Materialaren proiektua egin zutenean, Udalaren *Gizarte Zerbitzuarekin* jarri ziren harremanetan, baita beste talde batzuekin ere, eta etorkinen ohiko kezka hartu zituzten kontuan. Horrela, materiala eskolan erabiltzean, ikasleak interesatuta eta identifikatuta sentitzen dira agertzen diren egoera eta arazoekin, eta gaiak beren kezkei eta errealitateari buruz galdetzeraz bultzatzen ditu. Irakaslea aholkulari eta laguntzaile bihurtzen

da, galderei erantzun behar die eta arazoak konpontzen lagundu: haurra zein eskolara eraman, bankuen eta kutxen zerbitzuei buruzko informazioa eman, administrazioarako gutun bat idatzi, solaskide eta lagun izan, hemengo sindikatuei buruzko informazioa eman...

**Asistentzia:
talde-dinamikako
erronka handiena**

Talde-dinamikako bestelako gorabeherak alde batera utzita, leku berezia eskaini nahi diot asistentziari.

Aurreko ataletan aipatu arrazoiengatik (matrikulatutako ikasleen kopuru handia, erakutsi zuten interesa...) pozik ekin genion ikastaroari. Baina ikastaroaren bigarren astean bertan hasi ziren ikasleak eskoletara huts egiten. Bi ikaslek, ikastaroa hasterako, bazekiten lan-kontratu berria izango zutela, baina gutxi ordaindu behar zenez gero, hasierako egunak aprobetxatzea pentsatu zuten, eta, jakina, lasterrera utzi zioten etortzeari. Beste batek, bazekien hiru aste baino ez zituela emango ikastaroan, ikasketetako praktikak egin behar zituelako, baina horrek ere, zerbait ikaste-arren eman zuen izena.

Geroago, ikastaroa aurrera joan ahala, eguraldia hobea zenez eta ostalaritzan lanordu gehiago eman behar zuteneguz, batzuetan ezin izaten ziren eskoletara etorri. Ikasleen huts egiteak ez ziren berdinak izaten: batzuk astean behin edo bitan baino ezin ziren etorri; beste batzuk astean orduen batean baino ez, beste batzuk zenbaitetan aste osoan ere ez... Askotan ezin izaten genuen aurreikusi noiz etorriko zen ikaslea eta noiz ez; hortaz, zail zitzaigun eskolak eraginkor programatzea, eta, bestalde, ezin genituen etxerako lan osagarriak ganoraz antolatu.

Ondorioz, klasearen antolamendurako irregulartasun bikoitza izan genuen: gorago aipatu dugun ikasketa-maila ezberdinena, eta, ikastaroa aurrera, sortu zitzaigun asistentziarena.

Horrek buruhauste handia sortu zigun lan-taldearen dinamikan, eta areago, atazetan oinarrituriko metodoa erabiltzen genuelako. Euskaltegian geneuzkan etorkinen bi taldeetan antzeko egoera genuenez –eta aurten ere, 2004an, egoera bertsua dugu– talde hauen ezaugarritzat hartu behar zela ikusi genuen. Egoera horri aurre egiteko, estrategia hausnartu eta abian jarri behar izan genuen: asistentzia urria zutenek gairik eta atazarik gal ez zezaten eta asistentzia oneko ikasleak asper ez zitezen, AISAKo atazen antzekoak egiten genituen, eskolan jadanik egindakoak ez errepikatzearren. Horrela, alde batetik, asistentzia urriagoa zutenek, ez zuten ez gairik ez ataza garrantzizkorik galtzen. Eta eskolara etortzeko gogoari ere eusten zioten beren ikas-prozesuan jarraipena nabaritzen baitzuten. Eta beste aldetik, asistentzia oneko ikasleek, landutako gaiak hobeto finkatzeko aukera zuten.

Horrek guztiak, noski, eragin zuzena izan zuen landuriko unitate kopuruan (9 unitate 120 ordutan egin genituen, zegozkien 40 ordutan egin beharrean), eta ikasle bakoitzari ezarritako helburuetan (hasierako helburuak aldatu egin genituen ikasle bakoitzaren asistentziaren arabera eta ikasteko gaitasunaren arabera).

Behin 2003ko ikastaroa amaituta, hurrengo ikasturterako zer asmo zuten galdetu genien ikasleei, eta ordura arteko bi taldeetatik talde bat osatzeko beste ikaslek jarraitu nahi zutela adierazi ziguten. 2003-04 ikasturterako izena ematera etorri zirenean, ordea, ezin izan zen taldea osatu, ezinezkoa zitzaielako ordutegia adostea. Hori zela eta, batzuk euskaltegiko talde arruntetan apuntatu ziren; beste batzuek ez zuten ize-nik eman iazko taldeak jarraitzen ez zuelako; beste batzuei talde arruntetako ordutegia edo ordu kopurua edo prezioa ez zetorkien ondo; eta gainontzekoek ikasturte berriko *Harrera-ikastaroan* jarraitu zuten. Iazko ikastarora etortzeari utzi zioten zenbaitek aurten ere izena eman dute, baina asistentzia-arazoa bertsua izan da. Azkenik esan, gainontzeko ikasleak, edo atzerrira itzuli zirela, edo herriz aldatu edo, besterik gabe, ez zutela euskara ikasten jarraitu.

Helburuak lortuta

Ikasleek lortu dituzte ikastarootako helburu nagusiak, betiere izan duten asistentziaren eta gaitasunaren arabera. Ikasle guztiek euskaltegian izan duten esperientziak euskararekiko eta euskal kulturarekiko zuten aldeko ikuspegia indartu egin du. Hori euskalduntze-prozesuan garrantzizkoa dugu alde psikolinguistiko eta soziolinguistikotik. Etorri diren, datozen eta etorriko diren kultura ezberdinetako etorkinen kopuru handia aurreikusita, hori izan dugu seguruen ikastaroaren lorpenik behinena, kultura ezberdinak euskaldunon gizartera biltzeko.

Aurrerantzean sor litezkeen etorkinen taldeei begira, aurreko paragrafo-ko ikuspegi positiboa azpimarratu nahi dut. Izan ere, asistentzia eskasak irakasleagan sortzen duen porrot-sentsazioa gainditu beharra dago, gure eskarmentuak dioskunez, oinarritzko helburuak bete daitezke-eta. Horrek, hala eta guztiz ere, ez du esan nahi asistentzia hobetzeko bideak jorratu behar ez direnik (berehala azalduko dudanez).

Ondorioak

Argi eta garbi dago datozen urteetan Euskal Herrira etorkin asko etorriko zaizkigula eta euskalduntzeko plangintzan aintzat hartu beharko direla. Horregatik, *Harrera-ikastaroek* garrantzi handia dute, eta ikasle horien ezaugarriak ikusita, tratamendu berezia eskaini behar zaie, gaur egun dauden euskaltegietako moduluetan txertatzea eta matrikula ordaintzea zail gertatzen baitzaie. Ahal dela, egokiena ikasle horiek talde arruntetara biltzea da, baina askok ezinezkoa dutenez, bide berriak urratu beharko ditugu ikas-prozesua errazteko:

- Ordutegi malguagoak eskaini.
- Diru-laguntzak eman.
- Izaten diren bajak ikusirik, ikasle askoko taldeak eratu, hasi eta lasterrena ikasle gutxiegiarekin gelditu ez daitezela.

Amaitzeko –eta alderatzearen– esan dezagun, nabarmena dela Europan badirela etorkin-kopuru handia duten eskualdeak eta, horietan ere, etorkinek ez bide dutela tokian tokiko hizkuntza ikasteko akademietara joa-

teko aukera handirik, lan egin behar izaten baitute. Bestela ezin eta lanean bertan ikasten dute hizkuntza, lankideekin eta bezeroekin ari direla. Hori aintzat hartuta, eraginkorra izan liteke lanean bertan euskara ikasteko proiektuak eratzea (lankideekin, bezeroekin...), bertoko langileekin hainbat lantokitan egiten den antzera.

Bide horiek eta beste batzuk urratu beharko ditugu, etorkinen euskalduntzean aurrera eraginkor egingo badugu.

Bibliografia

Berry, J.W. 1980. Acculturation as varieties of adaptation. In Padilla, P.M. (ed.) *Acculturation: Theory, models and some findings*. Boulder, Col., Westview.